

HIRIGUNE HISTORIKOEN NAZIOARTEKO BILERAK

*Jose Antonio Arana Martija
Bilbon, egoitzan, 1997-11-06*

Euskaltzaindiaren izenean ongi etorria eman nahi diet, eta gure zerbitzuak eskaini, gaur goizean Bidebarrietako Bibliotekan hasi diren Jardunaldietan eta orain gure areto honetan jarraitzen duten nazioarteko kideei, Hirigune Historikoen izana, geroa eta zeregina aztertzeko asmoetan Biltzar honetan partaide direnei hain zuzen.

Hirigune Historikoak badute zeresanik merkataritza arloan, baina kultura munduan ere aitzindari izan eta izango direla ez dut uste uka dezakegunik. Hirigintzan, arkitekturaren, gizarteartzean eta abar luze batean bilguneak izan dira historian zehar, eta ene ustez, halako ikuspegiak hausnartzeko eta iruzkin aberatsak egiteko une egokia izango dela bi egunotako bilereetan.

Bilbori dagokionetik, hiriaren hedakuntza ez da hain zaharra, lehendik inguruan zeuden elizateak duela ehun urte bereganatu zituen eta. Hiriaren aurkako hauen erasoak ezagunak ditugu. Adibide bat jartzearen, gogora dezagun Zamakolak Abandotik sortu zuen iskanbila. Dena den, laster 700 urte beteko dituen hiriak badu historia autonomoa Zazpi Kaleak deitzen diren hirigunean. Hemen jaio ziren, besteak beste, Juan Krisos-tomo Arriaga musikaria eta Migel Unamuno pentsalaria. Hemen zeuden Bizkaiko Institutua eta hiriko Antzokia, orain Arriagaren izena daramana. Hemen zeuden lau parrokiak, hauetariko bat orain, 1950 urtean hasita, Santiago katedrala dena. Hemen zeuden Udaletxea eta Diputazioa, azken hau orain gauden etxe honetan zegoena. Hemen dago Museo Etnografikoa, non lehen egon zen munduan zehar merkatal harremanetan famatua izan zen Kontsulatua. Eta kulturaren adierazgarri handiena denak, hizkuntzak, euskarak, hemen dauka 1918an sortu zenetik egoitza, Euskal Herri osoan eragina daukan Euskaltzaindiak.

Har dezagun Hirigune Historikoen balioaren kontzientzia. Hori hala izango delakoan, ongi etorriak izan zaitezte areto honetara. Jaun andreak, agur.

* * *

En nombre de Euskaltzaindia debo dar la bienvenida, y ofrecer nuestros servicios a quienes, habiendo comenzado estas Jornadas por la mañana en la Biblioteca de Bidebarrieta, se reúnen en esta nuestra sala para analizar la esencia, el futuro y los quehaceres de los Cascos Históricos de nuestras villas y ciudades.

Estos Cascos Históricos tienen mucho que decir en la historia del comercio y actividades materiales, pero no podemos olvidar que también en el campo de la cultura han sido los iniciadores y seguirán siendo centros importantes de actividad. A lo largo de la historia han sido motores del urbanismo, la arquitectura, la relación social y un

largo etcétera de actividades vitales. Creo que las reuniones de estos dos días servirán para analizar y comentar tales aspectos.

Por lo que a Bilbao se refiere, la expansión de la villa no es tan antigua, habiéndose realizado además hace cien años con la anexión de las anteiglesias circundantes ya existentes. Son conocidos los ataques que la villa sufrió de estas y otras anteiglesias de Bizkaia. Por poner un ejemplo, recordemos la tensión que entre villas y anteiglesias provocó Zamácola a principios del siglo XIX. Este Casco Histórico de Bilbao, siempre conocido como las Siete Calles (y no Casco Viejo), va a cumplir el año 2000 sus 700 años y tiene su historia autónoma. Aquí nacieron, entre otros, el músico Juan Crisóstomo Arriaga y el pensador Miguel Unamuno. Aquí estuvieron el Instituto de Bizkaia y el Teatro municipal, que ahora lleva el nombre del citado Arriaga. Aquí estaban las cuatro parroquias, una de las cuales, desde 1950, es ahora catedral de Santiago. En las Siete Calles estaban el Ayuntamiento y la Diputación, ésta precisamente en el edificio donde ahora nos reunimos. Aquí sigue estando el Museo Etnográfico, donde antes estuvo el Consulado de Bilbao, de amplias relaciones comerciales internacionales. Y aquí tiene su sede, desde que se fundó en 1918, la Real Academia de la Lengua Vasca - Euskaltzaindia, única institución reconocida en todo el País Vasco para la investigación y cultivo del vascuence o euskara, seña principal de identidad de nuestra cultura.

Tomemos conciencia del valor de los Cascos Históricos. En la confianza de que así sea, sean todos ustedes bienvenidos a esta sala. *Ad maiorem civitatum gloriam.* Señoras y señores, un cordial saludo.